

Haurreskolak Partzuergoko LAN BALDINTZAK HOBETU, HEZKUNTZA ERAIKI!

Cristina Uriarteri Toledo

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kontseilariari,

Maite Larrañaga Orbea

Haurreskolak Partzuergoko gerenteari,

Azken hilabeteetan plazaratu moduan, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuen ustez ondorengoak dira Haurreskolak Partzuergoari dagokionez, egungo egoerari irtenbidea ematen hasteko adostu beharreko neurriak:

- **Kudeaketako eta Hezitzaile langileen LZ eta egonkortasuna bultzatu.** Haurreskolak Partzuergoko langileen behin-behinekotasun tasa % 41ekoa da, kudeaketa langileena %100ekoa.
- **Geletako ratioak berdintasunean oinarritutako irizpideekin aplikatu.**
- **Ordezkapenak bertaratze orriarekin ez baldintzatu.**
- **Lizentzia, baimenak eta txanda egunak ordezkatu.** Egin ezean lankideen lan karga handitzen da eta zerbitzuaren kalitatea, berriz, kaxkartu.
- **Haurreskola txikietan familia guztiei 8 orduko zerbitzua eskaintzea.**
- **Koordinazio liberazio orduak irekita dauden gela kopurua izatea erreferentzia.**
- **Koordinatzaile ordeak plusa proportzionalki jasotzea** (hilabete batera heldu ezean).
- **Erretiroa erraztu, errelebo kontratuarekin akordio batera heldu.** Gaurko errelebo kontratuen araudiaren aplikazioa 2018ko abenduaren 31n amaitzen da.
- **Bajak lehen egunetik %100ean ordaindu.**
- **Eroste ahalmena berreskuratu.**
- **Dekretu bidezko ordezkoen araudirik ez!**
- **Haurreskolen doakotasuna.**

Eta hezkuntza publikoko sektore ezberdinetako aldarrikapenekin bat eginez:

- Hezkuntza inbertsioa handitzea (gutxienez Europar Batasuneko batz-bestekoa, progresiboki %6ra iritsiz).
- LOMCE Euskal Herriko gure ikastetxeetatik ateratzea eta honen moldaketa hutsa den Heziberri bertan behera uztea.
- Hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera uztea, egungo desorekak gaindituz hezkuntza garapen pertsonal eta sozial integralerako tresna izan dadin (kohesio soziala, integrazioa, aniztasuna, berdintasuna, hezkidetza oinarri).
- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen euskarazko murgiltze eredua garatzea.
- Balizko Hezkuntza legearen aurrean sindikatu, hezkuntza eragile eta herritarron parte hartzea eta iritzia aintzakotzat hartzea.

Egoera larri honi buelta emateko inolako neurri zehatzik ez duzue ezarri mahai gainean.

Haurreskolak Partzuergoko langileok, benetako negoziazioa egon ezean, gure lan baldintzen alde eta hezkuntza eraiki bidean, mobilizatzen jarraituko gara.